

2009
KOLDO ELEIZALDE LEHIAKETAK
XXIV. edizioa

BERGARAKO UDALA. EUSKARA BATZORDEA

2009
KOLDO ELEIZALDE LEHIAKETAK
XXIV. edizioa

OINARRIAK

1.- Partehartzaileak. Lehiaketa honetan Bergaran jaio, bizi edo lan egiten duen edozeinek har dezake parte bakarka zein taldeka.

2.- Lan berriak. Oinarri hauetako genero bakoitzari buruzko azalpenetan agertzen da aurkeztutako lanek berriak izan behar duten edo ez. Orijinalak izan beharreko lanen bat hala ez dela frogatuko balitz, lanaren aurkeztzaileak 50 euroko isuna ordaindu beharko dio Bergarako Udalari.

3.- Lanak aurkezteko modua. Lanak kartazal handi batean bidali edo entregatu beharko dira Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuan. Kartazalaren kanpoko aldean honako hauek idatziko dira:

- "Koldo Eleizalde Lehiaketak" izenburua
- Lanaren generoa: ipuina, bertsoa...
- Taldea: 1. taldea, 2. taldea...

Kartazal handian, berriz, honako hauek sartuko dira:

- a) Lanaren (idazlanaren, komikiaren, DVDaren...) bi kopia. Lanean bertan ez da egilearen izenik jarriko; horren ordez goitizen bat jarriko da.
- b) Beste sobre txiki bat, kanpoan egilearen izengoitia eramango duena eta barruan orri honetan dagoen "Egilearen datuak" atala, beteta.

Ahozko generoen kasuan (ipuin-kontaketa/antzerkian, bertsoetan edo txiste lehiaketa-pasadizoetan) aurkeztu ahal izango dira lanak sare bidez ere, udal webgunean horretarako gertatutako inprimakia erabiliaz.

4.- Lanak aurkezteko epea eta sari-ematea. Lanak bidaltzeko edo entregatzeko epea apirilaren 22an bukatuko da eta sariak ekainaren 6an, larunbata, emango dira Zabalotegi aretoan, eguerdiko hamabietan.

5.- Partehartzea saritzea. Partehartzaile guztien artean euskarazko aldizkari batzuen harpidetzak zozkatuko dira.

6.- Jabetza-eskubideak eta lanak berreskuratzea. Aurkeztutako lanak Bergarako Udalaren eskuetan geldituko dira eta Udalak argitaratu ahal izango ditu.

Lehiaketara aurkezteak adierazten du aurreko paragrafoan aipatutako lanen eskubideak Udalari ematen zaizkiola eta, beraz, partehartzaileek ez dute lanok argitaratzeagatik sariaz aparteko beste ordainik izango.

Saritutako lanen egileek argitaratu ahal izango dute beren lana beste argitalpen batzuetan ere baina bertan adierazi beharko dute Bergarako Udalak antolatutako Koldo Eleizalde lehiaketan saritua izan dela.

7.- Epaimahaia. Epaimahaia Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak aukeratutako pertsonen osatuko dute.

8.- Gutxieneko maila. Epaimahaiaren iritziz, talderen batean aurkeztutako lanek, gutxieneko mailarik ez balute, sariak beste taldeetakoei gehituko litzaizkieke, edota hurrengo lehiaketarako gorde.

9.- Ikusentzunezko artxiboak erabiltzeko baimena. Ikusentzunezko generoetan, ulertuko da lanaren bidaltzaileak baduela bertan agertzen diren pertsonen baimena. Edozein kasutan ere, lanean adinez txikiak agertzen badira, horien guraso edo tutoreek sinatutako baimen idatzia aurkeztu beharko da. Baimen hori eman ahal izango du ikastetxeak lehendik gurasoengandik lortua badu. Baimena emateko formularioa webgunean eskuratu ahal izango da.

EGILEAREN DATUAK

Generoa (ipaina, bertsoa...):.....
Egilearen izengoitia:.....
Lanaren izenburua:.....
Egilearen izen-abizenak:.....
Helbidea:.....Telefonoa:.....
Jaioteguna:..... Taldea:.....
Ikastetxea:..... Eposta:.....

Orri honetako datu pertsonalak Bergarako Udalak behar bezala baimendutako fitxeroetan sartuko ditu. Datu horiek udal kudeaketarako erabiliko dira bakarrik, baina beste administrazio publikoei edo hirugarrenei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoan, aurreikusitako kasuetan.

Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dute ondorengo helbidera zuzenduta: Bergarako Udala.- San Martín Agirre plaza, 1.- 20.570 Bergara.

IPUIN IDATZIA

Gaia: librea.

Lanek orijinalak eta inoiz saritu eta argitaratu gabeak izan beharko dute.

Bost talde izango dira jaioturtearen arabera eta lanen luzera eta sariak hauek izango dira:

Taldea	Jaioturtea	Luzera	1. saria	2. saria	3. saria
1	2001-02	1-2 orrialde	Material didaktikoa	Material didaktikoa	Material didaktikoa
2	1999-00	1-2 orrialde	Material didaktikoa	Material didaktikoa	Material didaktikoa
3	1997-98	1-2 orrialde	Material didaktikoa	Material didaktikoa	Material didaktikoa
4	1994-95-96	2-5 orrialde	110	80	60
5	1993 edo aurretik	3-10 orrialde	275	210	150

Laugarren eta 5. taldeko lanak tarte bikoitzez makinaz idatzita aurkeztu beharko dira. Egile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du.

BERTSOAK

Gaia, neurria, doinua: libreak.

Lanek orijinalak eta inoiz saritu eta argitaratu gabeak izan beharko dute.

Hiru talde izango dira jaioturtearen arabera eta bertso-kopurua eta sariak hauek izango dira:

Taldea	Jaioturtea	Bertso-kopurua	1. saria	2. saria
1	1997-98-99	3-6 bertso	Material didaktikoa	Material didaktikoa
2	1994-95-96	4-8 bertso	90	60
3	1993 edo aurretik	8-12 bertso	175	90

Bertsoak paperean eta entzutezko artxibo digitalean MP3 formatuan kantatuta aurkeztu beharko dira CDan edo 3. oinarrian adierazi bezala, sare bidez. Egile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du.

KOMIKI-TIRA.

Gaia: librea.

Lanak orijinalak eta inoiz saritu eta argitaratu gabeak izan beharko dute.

Hiru talde izango dira jaioturtearen arabera eta sariak hauek izango dira:

Taldea	Jaioturtea	1. saria	2. saria
1	1997-98-99	Material didaktikoa	Material didaktikoa
2	1994-95-96	90	60
3	1993 edo aurretik	150	90

Tiraren tamaina: 29 x 10 cm-ko tirak izan beharko dira, nahi adina biñetatan banatuta.

Egile bakoitzak 3 tira aurkeztu ahal izango ditu gehienez ere. Edozein kasutan, tirak bakoitza bere aldetik baloratuko da eta egile berak ezingo du sari bat baino gehiago jaso.

Lehiaketaren helburu nagusietako bat komikien bidez ahozko berbeta lantzea da; beraz, ez da onartuko komiki muturik eta epaimahaiak lanak baloratzerakoan, bereziki baloratuko du komikietako testuen egokitasun eta adierazkortasuna.

IPUIN-KONTAKETA EDO ANTZERKIA

Gaia: librea.

Hiru multzo izango dira partehartzaileen jaioturtearen arabera:

Taldea	Jaioturtea	1. saria	2. saria
1	2003an edo ondoren	Ez da, berez, 1. eta 2. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako bi sari emango dira.	
2	1997-2002	Ez da, berez, 1. eta 2. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako bi sari emango dira.	
3	1996an edo aurretik.	275	210

Lanak ikusentzunezko artxibo digitalean (formatoak: AVI, MPG edo FLV) grabatuta aurkeztu beharko dira CD edo DVDan edo 3. oinarrian adierazi bezala, sare bidez eta partehartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du.

Lehiaketaren helburua ahozko kotasuna lantzea da eta epaimahaiak lanak baloratzerakoan, kontakera edo antzezteko modua (ahots modulazioak, isiluneak, entonazioa, gorputz espresioa...) hartuko ditu, batez ere, kontuan. Arrazoi horregatik, ez da, antzerki muturik onartuko eta ez da ezinbestekoa izango kontatuko den ipuina edo antzestuko den lana orijinala izatea. Edozein

kasutan orijinala ez baldin bada, adierazi egin beharko da lanaren izenburua eta egilea.

Partehartzaile kopuruaren arabera, bereizi ahal izango dira ipuin-kontaketa eta antzerkiko sariak.

TXISTE ETA UMOREZKO PASADIZOAK

Gaia: librea.

Hiru multzo izango dira partehartzaileen jaioturtearen arabera:

Taldea	Jaioturtea	1. saria	2. saria
1	2000n edo ondoren	Ez da, berez, 1. eta 2. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako bi sari emango dira.	
2	1996-1999	Ez da, berez, 1. eta 2. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako bi sari emango dira.	
3	1993-1995 ean edo aurretik.	90	60
4	1992an edo aurretik	150	90

Lanak ikusentzunezko edo entzutezko artxibo digitalean (formatoak: MP3, AVI, MPG edo FLV) grabatuta aurkeztu beharko dira CD edo DVDan edo 3. oinarrian adierazi bezala, sare bidez eta partehartzaile bakoitzak gehienez bi txiste edo pasadizo aurkeztu ahal izango du/ditu. Edozein kasutan, txiste edo pasadizook banaka baloratuko dira eta egile bakoitzak ez du sari bat baino gehiago jasoko.

Antolatzailea: Bergarako Udala. Euskara Batzordea.

Babeslea: KUTXA

Laguntzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak